

183/2002 Foru Dekretua, abenduaren 3koa, urriaren 15eko 7/2002 Foru Araua garatu duena; foru arau horren bidez Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Sistema Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren berezitasunetara moldatu da

(BAO Abenduaren 19koa)

Urriaren 15eko 7/2002 Foru Arauak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Sistema Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren berezitasunetara moldadu duenak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Sistemaren beharrezko moldaketak egitea du xede, hain zuzen ere, hura Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren berezitasunei egokitzeko, beraren erabilera eta sendoketa bermaturik egon daitezen.

Hala, bada, foru arau horrek behar ziren aldaketak egin ditu Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan, Ondarearen gaineko Zergan, Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan, Toki Ogasunei buruzko Foru Arauan, Hiri Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergan, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan eta gure lurralde historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean, xedapen horiek guztiak Foru Zuzenbide Zibila osatzen duten erakundeei egokitzeko, bestela, zerga-tratamendu ezegokiaren ondorioz, gerta zitekeelako beraiek erabiltzeari uztea. Baina, aldi berean, eutsi egin zaie gure Zerga Sistemaren abiaburu nagusiei.

Honako foru dekretu honek arau bidez garatuko du Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Sistema Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren berezitasunetara moldadu duen urriaren 15eko 7/2002 Foru Arauaren alderdi nagusietariko bat, alegia, ordenatzaile-ahala baliatzearen zain dauden jaraunspenetan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga eta Ondarearen gaineko Zerga ordaintzeko araubide berezia. Azkenik, foru arau horren azken xedapenetariko bigarrenean Bizkaiko Foru Aldundiari eta Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuari ahalmena eman zaie foru arauan ezarritakoa garatu eta betearazteko behar diren xedapen guztiak eman ditzaten. Horrenbestez, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposaturik, Foru Aldundiak 2002ko abenduaren 3ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honakoa, xedatu dut:

I. TITULUA

ZERGA-ARAUEN MOLDAPENAZ

(...)

II. TITULUA.

ORDENATZAILE-AHALA BALIATZEAREN ZAIN DAUDEN JARAUNSPENEN ZERGA-ARAU BIDEAZ.

I. KAPITULUA.

ARAU OROKORRAK.

7. artikulua. Arau orokorrak.

1. Titulu honen bidez, ordenatzaile-ahala baliatzearen zain dauden jaraunspenen zioz Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga eta Ondarearen gaineko Zergaren ordainketarako urriaren 15eko 7/2002 Foru Arauaren II. Tituluan ezarritako araubide berezia garatzeko arauzko xedapenak araupetu dira. Foru arau horrek Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Sistema Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren berezitasunetara moldatu du.

2. Kontrako xedapenik edo foru dekretu honetako hurrengo artikuluetan beren beregi ezarritako arau zehatzik ezean, ordenatzaile-ahala baliatzearen zain dauden jaraunspenei Bizkaiko Lurralde Historikoan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari eta Ondarearen gaineko Zergari buruz arau bidez indarra duten arauak aplikatuko zaizkie, zerga horiek ordaintzeko araubide bereziekin bat datozen alderdi guztietan.

II. KAPITULUA.

PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA.

8. artikulua. Ondare-irabazi eta -galeraren eta higikorren kapitalaren zenbait etekinen salbuespena.

1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik salbuetsita daude ordenatzaile-ahala baliatzearen zain dauden jaraunspenetako ondasunak edo eskubideak eskualdatuz lortzen diren ondare-irabazi eta -galerak, baldin eta eskualdaketak ez badakar berekin Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren sortzapena.

2. Halaber, Zergatik salbuetsita daude Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 21eko 10/1998 Foru Arauko 35. artikuluan aipatutako higikorren kapitalaren etekinak, hain zuzen ere ordenatzaile-ahala baliatzearen zain dauden jaraunspenen osagai diren besteren kapitalak erakarri eta erabiltzearen ordezkagarri diren aktiboak eskualdatuz lortzen direnak, baldin eta eskualdaketak ez badakar berekin Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren sortzapena.

3. Aurreko bi idatz-zatietan xedatutakoaren ondoretarako, salbuespenak barne hartzen ditu, bereziki, jaraunspenaren komisario den ezkontide alargunari eskuetsitako xedapen-egintzak, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilar buruzko uztailaren 1eko 3/1992 Legearen 99. artikuluan xedatutakoaren itzalpean, baldin eta aurreko bi idatz-zatietan aipatu diren zergapeko ondare-irabazi eta -galerak edo higikorren kapitalaren etekinak sortzen badituzte, eta ordenatzaile-ahala baliatzea edo hura iraungitzeko beste kariren bat eragiten ez badute.

4. Salbuespen hori aplikatu daitekeen gainerako kasuetan, ezinbesteko baldintza gisa, ondare-aldakuntzak edo eskualdaketak ez du eragin behar ordenatzaile-ahala baliatzerik, ezta hura iraungitzerik ere, eta, ondorioz, ez du ekarri behar Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren sortzapenik.

9. artikulua. Zerga-oinarriaren zehaztapena.

1. Ordenatzaile-ahala baliatzearen zain dagoen jaraunspenari dagokion Zergaren oinarria zehazteko, ekonomi jardueren etekinak ordenatzaile-ahala baliatzearen zain

dagoen jaraunspenak lortuzat joko dira, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudiak, uztailearen 29ko 132/2002 Foru Dekretuaren bidez onetsitakoak, 14. artikuluko 3. idatz-zatian eta 52.ter artikuluan xedatutakoa dela bide, eta hori beti izango da horrela, ordenatzaile-ahala baliatzearen zain dagoen jaraunspenak berak zuzenean eta etengabe dena-delako ekonomi jardueraren ekoizpide eta giza baliabideen antolaketan parte hartzearen betekizuna bete zein ez.

2. Ordenatzaile-ahala baliatzearen zain dagoen jaraunspenari dagokion zerga-oinarriari sartuko dira, halaber, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudiak, uztailearen 29ko 132/2002 Foru Dekretuaren bidez onetsitakoak, 52.bis eta 52.ter artikuluetan adierazitako etekinak, ondare-irabazi eta -galerak eta errenta-egozpenak. Artikulu horretan ezarritako arauak beteko dira egozpena egiteko.

10. artikulua. Kuota osoan aplikatu daitezkeen kenkariak. Kuota osoan aplikatu daitezkeen kenkariak.

1. Zergaren kuota likidua kalkulatzeko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 21eko 10/1998 Foru Arauko 76.bis, 78, 81, 82, 83, 84 eta 85. artikuluetan ezarritako kuota-kenkariak soilik aplikatu ahal izango dira.

2. Artikulu honetako aurreko idatz-zatian xedatutakoaren arabera, ordenatzaile-ahala baliatzearen zain dauden jaraunspenei ezingo zaizkie aplikatu uztailearen 29ko 132/2002 Foru Dekretuaren bitartez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudiaren 55-65 bitarteko artikuluetako arauak.

11. artikulua. Oinarri likidator negatiboan eta kuota-kenkariaren konpentsazioa.

1. Oinarri likidator negatiboak eta kuota nahikoa izan ez eta aplikatu ez diren kuota-kenkariak ordenatzaile-ahala baliatzearen zain dagoen jaraunspenaren oinarri likidator positiboekin eta kuota osoekin soilik konpentsatu ahal izango dira.

2. Beraz, ordenatzaile-ahala baliatzearen zain dagoen jaraunspena iraungitzen bada, dela ahal hori bete-betean baliatzeagatik, dela iraungipena dakarren beste kariren batengatik, jaraunspena iraungitzen den unean konpentsatu gabe dauden oinarri likidator negatiboak eta kuota nahikoa ez izan eta gauzatu gabe dauden kuota-kenkariak, kausadunek ezin izango dituzte konpentsatu ez gauzatu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren banakako aitortpen-likidazioetan.

Horrelakoetan, konpentsatu gabeko oinarri likidator negatiboak konpentsatzeko eta kuota nahikoa ez izan eta gauzatu gabe geratu diren kuota-kenkariak gauzatzeko eskubidea galdu egingo da, eta horiek egiteke geratuko dira, behin jaraunspenaren azken zergaldiari dagokion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpen-likidazioa egindakoan.

12. artikulua. Aitortu beharra.

1. Ordenatzaile-ahala baliatzearen zain dagoen jaraunspenak, beti ere, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena aurkeztu beharko du, eta bere datu guztiak jarri beharko ditu aitortpenean, berari dagozkion etekinen zenbatekoa eta iturria gorabehera.

2. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga ordaindu behar duten gainerako zergadunentzat Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak foru agindu bidez onetsitako eredu berberetan aurkeztuko da aitorten hori, eta zergadun guztientzat ezarritako arauak beteko dira.

3. Aitorpena aurkezteaz batera zerga-zorra zehaztu beharko dute, eta dena-delako zergaldian Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak zergadun guztientzat ezarritako lekuan, eran eta epean ordaindu beharko dute.

4. Ordenatzaile-ahala baliatzearen zain dagoen jaraunspenari artikuluko honetako aurreko idatz-zatietan ezarri zaizkion betebeharrak betetzea jaraunspenaren administratzailearen ardura izango da. Hala bada, administratzaileak sinatuko du aitorten-likidazioa eta berak egingo du zerga-zorraren sarrera.

5. Ordenatzaile-ahala baliatzearen zain dagoen jaraunspenaren administratzailea, halaber, zergaren ordainketaren erantzulea izango da, sorospidez.

13. artikulua. Formazko beste betebeharrak batzuk.

Ordenatzaile-ahala baliatzearen zain dagoen jaraunspenak, gainera, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudiak, uztailearen 29ko 132/2002 Foru Dekretuaren bidez onetsitakoak, V. Tituluko II. Kapituluaren ezarritako formazko betebeharrak izango ditu.

14. artikulua. Konturako ordainketak.

1. Ordenatzaile-ahala baliatzearen zain dagoen jaraunspena, eratziki behar zaizkion etekinei dagokienez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudiak, uztailearen 29ko 132/2002 Foru Dekretuaren bidez onetsitakoak, VI. Tituluan ezarritako araubide orokorrari loturik egongo da, atxikipen, konturako sarrera eta zatikako ordainketak direla-eta.

2. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudiak, uztailearen 29ko 132/2002 Foru Dekretuaren bitartez onetsitakoak, VI. Tituluko V. Kapituluaren xedatutakoaren ondoretarako, ordenatzaile-ahala baliatzearen zain dagoen jaraunspenari dagozkion zatikako ordainketak egiterakoan ekonomi jardueren aurreko ekitaldietako etekintzat hartuko dira, behar izanez gero, jaraunspenaren kausatzaileak jarduera horretan ziharduenean lortutakoak.

3. Ordenatzaile-ahala baliatzearen zain dagoen jaraunspena ondorengorik gabeko zergadunentzat joko da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudiak, uztailearen 29ko 132/2002 Foru Dekretuaren bitartez onetsitakoak, VI. Tituluko II. Kapituluako 1. Atalean eta 115. artikuluan xedatutakoaren ondoretarako.

4. Ordenatzaile-ahala baliatzearen zain dagoen jaraunspenak, halaber, atxikipenak, konturako sarrerak eta zatikako ordainketak egin beharko ditu eta horien sarrera egin Bizkaiko Foru Aldundiari, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko, Sozietateen gaineko eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zergei buruzko foru arauak eta hauen garapenerako arauak xedapenak ezarritako kasuetan eta moduan.

5. Ordenatzaile-ahala baliatzearen zain dauden jaraunspenek euren gain hartuko dute Foru Aldundiari sarrera egin beharra, baita aurreko 4. idatz-zatian ezarri den betebeharra bete gabe dagoenean ere. Jaraunspenaren administratzailearen ardura izango dira betebeharrak horiek. Beraz, administratzailea Foru Ogasunean sarrerak egitearen erantzulea izango da, sorospidez.

III. KAPITULUA.

ONDAREAREN GAINEKO ZERGA.

(Indargabetua)

IV. KAPITULUA

BATERAKO XEDAPENAK.

16. artikulua. Ordenatzaile-ahala baliatzearen zain dauden jaraunspenen zentsua.

1. Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak ordenatzaile-ahala baliatzearen zain dauden jaraunspenen zentsua edukiko du.

2. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren likidazio bulegoek "alkar-poderoso"ari edo erabiltzaile-ahalarik lotutako jaraunspenen jakitun jarriko dute Zuzeneko Zergen administratzailea, horrelako jaraunspenen bat dagoela jakiten dutenean, dela jaraunspenaren komisarioak berak adierazirik, ekainaren 5eko 107/2001 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Araudiaren 77. artikuluan xedatutakoa betez, dela beste edozein bidetatik.

3. Zergak kudeatzen dituzten organoek jaraunspenen zentsuko informazioa erabili ahal izango dute euren eginkizunak betetzeko, ordenatzaile-ahala baliatzearen zain dauden jaraunspenei zuzenean nahiz zehar bidez eragiten dieten zerga guztiak direla-eta.

17. artikulua. Ondasunen lotura.

1. Ordenatzaile-ahala baliatzearen zain dagoen jaraunspeneko ondasun eta eskubideak loturik egongo dira urriaren 15eko 7/2002 Foru Arauak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Sistema Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren berezitasunetara moldatu duenak, II. Tituluan araupetutako zergen eta honako titulu honek araupetutakoen ordainketari, ondasunen edukitzailea edonor dela ere, salbu eta edukitzailea erregistroko agerbide publikoaren babespean dagoen gainontzeko bat denean, edo ondasunak onustez eta titulu zuzenez merkataritza edo industri establezimenduan eskuratu izana froga-tzen denean, ezin inskribatu diren ondasun higigarriak badira.

2. Hori dela eta, ordenatzaile-ahala zati batez edo bete-betean eta modu ezetzazinean baliatzearen edo hura iraungitzearen ondorioz, aurreko idatz-zatian aipatutako ondasun eta eskubideak eskualdatzen direnean, eskualdaketan diharduten notario edo fedemaile publikoek oharra jarriko dute eskuesten dituzten agirietan, berauetan ager dadin ondasunak loturik daudela urriaren 15eko 7/2002 Foru Arauak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Sistema Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren

berezitasunetara moldatu duenak, II. Tituluan adierazitako zergen kuotak eta honako titulu honetan adierazitakoak ordaintzeari, alegia, eskualdaketaren aurretik sortutako kuoten ordainketari loturik daudela, zergen preskripzio epea amaitu arte.

3. Era berean, albo-oharraren bidez, jabetzaren eta merkataritzako erregistratzaileek agerrarazi egingo dute ondasunak loturik daudela urriaren 15eko 7/2002 Foru Arauak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Sistema Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren berezitasunetara moldatu duenak, II. Tituluan adierazitako zergen kuotak eta honako titulu honetan adierazitakoak ordaintzeari, alegia, eskualdaketaren aurretik sortutako kuoten ordainketari loturik daudela, zergen preskripzio epea amaitu arte.

XEDAPEN ERANTSIA. Bakarra. Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren osaketa eta erabilera araupetu dituen urriaren 8ko 113/1996 Foru Dekretua aldatzea.

1. Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren osaketa eta erabilera araupetu dituen urriaren 8ko 113/1996 Foru Dekretuaren 1. artikuluari d) letra gehitu zaio; hona:

- d) Ordenatzaile-ahala baliatzearen zain dauden jaraunspenak, baldin eta zerga-izaerako harremanak edo zerga-ondoreak dakartzaten harremanak badituzte.»

2. Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren osaketa eta erabilera araupetu dituen urriaren 8ko 113/1996 Foru Dekretuaren 14. artikuluari 3. idatz-zatia gehitu zaio; hona:

3. Enpresari edo profesionalek, Erkidego barruan ondasunak eskuratzen dituztenean, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 26. artikuluko bosgarren idatz-zatian ezarritako salbuespena eskuraketari aplikatu ahal izanez gero, ezingo diote eman xedapen horretan adierazitako ondasunen eskualdatzaileari artikuluko honetako 1. idatz-zatian xedatutakoaren itzalpean esleituta daukaten identifikazio fiskaleko zenbakia.»

XEDAPEN IRAGANKORRA. Urriaren 15eko 7/2002 Foru Araua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Sistema Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren berezitasunetara moldatu duena, indarrean jarri aurretik ordenatzaile-ahala baliatzearen zain egon eta zerga-izaerako harremanak edo zerga-ondoreak dakartzaten harremanak dituzten jaraunspenetako komisarioek, 2003ko apirilaren 1a baino lehen, Identifikazio Fiskaleko Zenbakia eskatzeko 036 eskabide-eredua aurkeztu behar dute, behar bezala beterik, Zerga Zentsuen Atalean.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA. Foru dekretu hau indarrean jartzen denean indargabetu egingo dira honen maila bereko eta beheagoko xedapenak, beronetan xedatutakoarekin bat ez badatoz.

AZKEN XEDAPENAK.

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondoreak. Bereziki, II. Tituluan dauden arauak aplikatu beharrekoak izango dira egun horretan ordenatzaile-ahala baliatzearen zain dauden jaraunspenetan.

Bigarrena. Araugintzarako gaikuntza.

Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuari ahalmena eman zaio foru dekretu honetan ezarritakoa garatu eta betearazteko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.